

Asisko gutuna

2024ko abuztua

2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

190. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Bekatu-kontzientzia gaixotzeko eran bizitzeko garaiak igaro ziren. Zenbat kalte egin digun! Orain inozentziaren kontzientzia bizi dugu, baina modu gezurtian. Zerbait ez doa ondo ez ordukoan ez oraingoan.

Gogoetarako gaia

Bekatu-kontzientzia

Inoiz ez gara gustura sentitzen geure baitan darماغun bizitza hondatzeko joera hori sumatzen dugunean: bizitzea egokitu zaidan onena nire norberekoikeriaz kutsatuta bezala dago; handikeri edo heroismozko ametsak agertu zitzaizkidanean izan nuen asmo benetan esku-zabal eta on hartan; injustizien aurrean piztu zitzaidan suminduran nire eta besteen aurrean nire buruaren justifikazioak ere ikusi nituen. Horrela, nigan nahasten diren merezimenduen eta motibazio ez hain txalogarrien zerrenda bat egin genezake. Inoiz ezingo genuke kotoiaren proba gaititu kontu hauetan. Horri ez diezaio-gun bekatu deitu, baina eman zaigun eta gure bihotzean sortu den onena hondatzen du.

Bekatu-kontzientzia hori, moraletik haratago, baldintza existentziala da, naizen eta bizi dudan guztia blaitzen duena. Eta horren aurrean hainbat bide har ditzaket: bat bekatu-kontzientziatik babestea da, begiak itxiz eta errealitate hori ukatuz. Batzuetan arrazionalizatu egiten dut, eta errua egozteko ariketa hori gaitituta

dagoela diot. Beste batzuetan neure burua zuritzen dut esanez dena nire borondate onenarekin egina zegoela. Halaber, esan dezaket legeak ezarritakoa bete dudala, Elizak dioena, etab. Eta, horrela, edozein gauzak balio du errudun-kontzientziak sortzen didan nolabaiteko ondoeza ez sentitzeko.

Agian gakoa ez dago bizi dudan funtsezko desoreka hori sentitzean edo ez sentitzean, baizik eta nire errealitate mugatu eta bekataria beste ikuspegi batetik begiratzean, non zentroa ez bainaiz ni, Jainkoa baizik. Ni neu Jainkoaren izena erabiliz aurkitu naizenean ere, haren grazia salbatzaileari irekitzen banaiz, haren babespean geratuko da dena, haren errukipean. Orduan bai emango zaizkidala bakea eta barkamena. Ez zait bekatuaren errua ukatzen, baizik eta ni guztia barkamenaren besarkadan bildua geratuko naiz. Eta horrek bakea eta itxaropena ematen du. Nigan sortuko zaidan gauza bakarra benetako esker on apal eta sakona izango da.

Biblia pasartea: Is 1,16-20

Garbi zaitzete, garbitu! Kendu nire begien aurretik egintza gaiztoak! Utzi gaiztakeria, ikasi onbidia, saiatu zuzenbidean: lagundu zapalduari, egin justizia umezurtzari, defendatu alarguna!» Honela dio Jaunak: «Zatozte, erabaki dezagun auzia: zuen bekatuak gorria baino gorriago badira ere, elurra bezain zuri geldituko dira; purpura bezain gorri izanik ere, artilearen antzeko bihurtuko dira. Nire esana egiteko prest bazaudete, lurralde honek duen gozonenetik jango duzue; ezezkoa eman eta errebelatzen bazarete, ostera, guduak irentsiko zaituzte». Jaunak berak esan du.

Frantziskotar espiritualtasuna

Egun batez, hainbeste mesede egin zion Jaunaren errukia miresten ari zela, beraren eta bere anaien bizi-bideak izango zuen bilakaera ezagutu nahi izan zuen Jaunagandik, eta otoitz-leku batera joan zen, maiz egiten zuen bezala. Luzaroan egon zen han, beldur-ikaraz, mundu osoaren jabearen aurrean. Barruko samintasunez gaizki igarotako urteak gogora ekarriz, hitzok errepikatzen zituen: Ene Jainkoa, erruki zaitetzek bekatari honetaz. Poliki-poliki, halako poz esanezinekoa eta gozotasun neurrigabea bihotz barnera isurtzen zitzaioala sumatzen hasi zen. Gainera, bere senetik kanpora sentitu zen, eta bekatuaren beldurrez bihotzean pilatu zitzaizkion sentimendu itogarriak eta ilunpeak uxaturik, bekatu guztiak barkatu zitzaizkion ziurtasuna eta Jaunaren grazian bizi zen konfiantza erran zitzaion barnean. Orduan, kordea galdurik, gora jaso eta halako argi batean guztiz bildua, bere barruko begirada zabaldurik. Garbi ikusi zuen etorkizunean gertatuko zirenak. Gozotasun hura argiarekin batera desagertu zenean, espirtu berriz jantzita, beste gizon bat bihurtu zen. (1Zel 26).

Otoitza

Jauna,
nigan barneratzen naizenean,
ez dago ezer:
ez zure zerua eta mendirik,
zure haize eta itsasorik;
ezta zure eguzkia ere,
ezta izar-jasarik ere.
Ez dago gainerakorik,
Ez eta Zu ere,
ni ere ez naiz existitzen.
Pentsatzearen poderioz, suntsitu egiten naiz.
Eta bakardade ilun batek inguratzen nau,
eta ez dut ezer ikusten
eta ez dut ezer entzuten.
Senda nazazu, Jauna, barrutik,
aurkezten zizkizuten
itsu, mutu eta legenardunei bezala.
Aurkeztu egiten naiz.
Senda iezadazu bihotza,

Besteei zor diedan zure maitasuna
mututua eta erreprimtua daramadan lekua;
hortik irteten baita besteek pairatzen dutena.
Esna nazazu, Jauna, koma sakon honetatik,
gauza guztien gainetik ni maitatze horretatik.

Iritsi nadila ikus ahal izatera berriro ere,
zu ikustera, haiek ikustera,
zure gauzak ikustera
zure bizitza ikustera,
zure seme-alabak ikustera...

Eta has dadila hizketan,
umeak bezala,
- totelka,
bizitzaren
bi hitz biribilenak:
GURE AITA!

Ignacio Iglesias, sj

Gutuneko azken hitzak

“Bekatuak ezin dira desegin, barkatu besterik ez.” (Igor Stravinski, musikagilea)

2024ko abuztuko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1. Mt 13, 47-53	8. Mt 16, 13-23	15. Lk 1,39-56	22. Mt 22, 1-14	29. Mk 6, 17-29
2. Mt 13, 54-58	9. Mt 25, 1-13	16. Mt 19, 3-12	23. Mt 22,34-40	30. Mt 25, 1-13
3. Mt 14, 1-12	10. Jn 12, 24-26	17. Mt 19, 13-15	24. Jn 1, 45-51	31. Mt 25, 14-30
4. Jn 6,24-35	11. Jn 6,41-51	18. Jn 6,51-58	25. Jn 6,60-69	
5. Mt 14, 13-21	12. Mt 17, 21-26	19. Mt 19, 16-22	26. Mt 23,13-22	
6. Mk 9,2-10	13. Mt 18, 1-5.10-14	20. Mt 19, 23-30	27. Mt 23, 23-26	
7. Mt 15, 21-28	14. Mt 18, 15-20	21. Mt 20,1-16	28. Mt 23,27-32	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Abuztuko otoitza hilaren
29an izango da.